

## Kanalak

**Bezeroen etxeetatik, erosketa lekura joateko** ahal den neurrian oinez edota bizikleta erabaliko dugu. Hasiera batean bizikleta normalak erabiliko ditugu baina denborarekin dirua lortzen badugu bizikleta elektrikoak erosi eta erabiliko ditugu bizkorrago ibiltzeko, hau bolumen txikiko erosketetan. Bolumen handiko erosketetan garraio publikoa erabiliko dugu, balio proposamenean aipatu bezala ahalik eta kutsadura gutxien sortzen saiatu nahi dugulako, izan ere oso kontzientziatuta gaude gai honekin.

**Bezeroekin komunikatzeko**, hainbat bide erabiliko ditugu. Alde batetik web gune bat egingo dugu informazio guztia eskuragai izateko guztiek, baita sare sozialak ere izango ditugu, hau batez ere familientzat zuzenduta egongo litzateke. Baina gehien erabiliko dugun kanala, telefonoa, emaila eta aurrez aurrekoa izango da, izan ere harreman pertsonalizatua beharrezkoa dela ikusten dugu.



